


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Beste alde

Henri Michaux

2018.2.2-2018.5.13

Henri Michaux: beste alde

- Datak: 2018ko otsailak 2–maiatzak 13
 - Komisarioa: Manuel Cirauqui
-
- Artistaren 200 pieza, dokumentu eta objekturen bitartez, hiru ardatz tematiko handiren inguruko ikuspuntu panoramiko eskaintzen du erakusketak: giza irudia, alfabetoa eta psike aztoratua.
 - *Hondo beltzak*, *frottageak*, *mugimenduak* eta *marrakzi meskalinarrak* bezalako funtsezko sailek presentzia nabarmena dute erakusketa honetan, eta aurrez inoiz erakutsi gabeko obrak barne hartzen ditu.
 - Artistak zientziarekiko, musikologiarekiko eta etnografiarekiko erakutsitako interes jarraitua azpimarratzen du erakusketak.
 - Michaux izpiritu aszetiko eta sistematiko batekin gerturatu zen substantzia haluzinogenoetara, kontzientziak baldintza esperimentaletan izaten zuen portaera aztertzeko.
 - Bere obra grafikoek nahiz literarioek kultura psikodeliko hasiberriaren eta *underground* mistikaren eredu izatera eraman zuten.

Guggenheim Bilbao Museoak *Henri Michaux: beste alde* aurkezten du. XX. mendeko literatura eta arteetako irudi sailkaezina izan zen Henri Michaux (Namur, Belgika, 1899–Paris, Frantzia, 1984), eta bere bizitza luzean zehar garaiko artista eta idazleengan eragin handia izan zuen. “Poeten poeta” eta “margolarien margolari” izan zen aldi berean, eta bi eremuetako figurek laudatu zuten, hala nola, André Gide-k eta Francis Bacon-ek.

Paper gaineko milaka obra sortzen jo eta ke jardun zuen, izan ere lan horien osotasuna apenas ezagutzen dugu egun. Erakusketa hau Parisko Michaux Artxibategiekin elkarlanean antolatu da, eta artistaren 60 urteko sormen-jarduera biltzen du, haren laneko sail eta epealdirik garrantzitsuenen bitartez. Artistaren 200 pieza, dokumentu eta objektu jasotzen dituen *Henri Michaux: beste alde* erakusketa hiru ardatz tematiko nagusiren inguruan egituratzen da: giza irudia, alfabetoa eta psike aztoratua; hain zuzen ere begirada panoramiko eskaintzen du horien gainean

Hiru bloke handi horien artean dauden paralelismo eta bateratasun formal nahiz materialak nabarmentzen ditu erakusketak, eta artistak zientzia, musikologia eta etnografiarekiko zuen interesa azpimarratuz. Michauxren funtsezko sailek presentzia nabarmena dute erakusketa honetan: hala nola, *hondo beltzak*, *frottageak*, *mugimenduak* eta *marrakzi meskalinarrak*. Sekula ikusgai egon gabeko artelanak daude hemen.

Erakusketarekin batera, Henri Michauxren eta Julián de Ajuriaguerra neurologo bilbotarraren gaztelerazko eta euskarazko testu aurrez argitaratu gabekoek osatutako katalogoa dago eskura. Ajuriaguerra artistaren kolaboratzaile izan zen 1950eko hamarkadan, eta pertsonaia giltzarria izan da Euskal Herriko psikiatriaren eremuan; 25 urte da hil zela.

305. aretoa: Agerpenak eta "fantasmismoa"

Esperimentatzaile eta bidaiari nekazina izaki, Paul Klee eta Max Ernst-en lanen bidez heldu zen Michaux pinturara, artista haiekin lehen kontaktua 1920ko hamarkadan izan ostean. Idazlearen tresnak, tinta eta papera, izan zituen lehengo baliabide abentura piktorikoan, nahiz eta laster garatu zituen egun bere lana ezaugarritzen duten teknikak, hala nola, gouachea hondo beltzaren gainean eta *frottagea*; artistaren epealdirik berantiarrenean, olio-pintura eta akrilikoarekin egin zuen lan. Akuarela eta tinta ere erabili zituen tarteka, hainbat paper motaren gainean. Teknika guzti horiek arinak ziren, istripurako edo gainezka egiteko joera zutenak, ezaugarri desiragarriak horiek, bere lanetan ausazkotasunaren esku-hartzea etengabe bilatzen zuen artista batentzat, indar ezezagunekin lankidetzan jardungo balitz bezala. Bulkada horren atzetik, eta izpiritu aszetiko eta sistemakikoarekin, Michaux substantzia haluzinogenoetara hurbildu zen, kontzientziaren jarrerak baldintza esperimentaletan aztertzeko; modu horretan, pinturaren printzipioak zentzumenetara eramane zituen. Michauxrentzat pintura *beste alde* hori da, eta eremu horren mapa infinitu bat osatzen du artistak.

Michauxren beraren hitzetan, "bere burua harritzeko" pintatu zuen beti. Ez zuen sekula sinetsi aurrez definituriko emaitzetan; aitzitik, materialarengan gertaera definigaitzak eragitea bilatu zuen, irudi, zeinu eta paisaia anbiguo eta ustegabeak sorrarazteko. "Pinturaren fenomenoari" buruz egindako adierazpen entzutetsu batean, filiazio edo korrante orori muzin egin artean, aitortu zuen *fantasmismoa* zela bera atxikitze moduko mugimendu bakarra: espektrora eta agerpenen artea. Hala, Michauxren obra osoan zehar izaki zehaztugabeak ageri dira eta alegiazko erretratu ugari daude. Genero klasiko horri eskainitako areto honetan, paperaren sakontasun mugagabetik artistaren eta ikusleen enkontrura ateratzen diren artistaren pertsonaiez betetako artelanen hautaketa zabala dago.

306. aretoa: Zeinuen bizitza

Esperimentu kaligrafikoek Michauxren ekoizpen grafikoaren zati handi bat hartzen dute. Ekialdeko idazkiek eta, bereziki, ideograma txinatarrek liluratuta, hasiera-hasieratik lan egin zuen artistak asmatutako alfabetoak sortzen, korrelazio fonetiko edo semantikorik gabe. Zeinu horiek, Michauxren arabera, poesia osatugabea dira beti: keinuaren eta bulkadaren literatura eta trazuaren dantza. Era berean, zeinuen hegaldatzea erritmo-printzipio etengabe baten arabera da: marrazki bakoitza da leherketa eta korrontea, hainbat norabide dituen "ibilbidea". Soinuen erritmo eta patroiekiko grinarekin batera landu zuen Michaux idatzi piktografikoekiko zuen interesa. Musika-praktikaren zalea ere bazen, nahiz eta bere marrazkiak baino ez diren horren testigu, batzuetan partiturak diruditela. Obra horietan literatura abstraktu eta intimo bat topatuko dugu, non trazuak etengabe aldatzen diren irudi eta pertsonaiak diren. Sarritan, zeinu horiek berezita ageri dira, letren antzera; beste batzuetan, ordea, animalien ezaugarriak edo ezaugarri totemikoak agertzen dituzte; are gehiago, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan substantzia psikoaktiboekin egindako esperimentu garaietan,

esaterako, trazuak biderkatu egiten dira paper-azalera handien gainean, eta Espresionismo Abstraktuaren praktikatik hurbil dauden konnotazioak hartzen dituzte.

307. aretoa: Psikea manipulatzeko

1955ean, adinez nagusi zela jada, Michauxk lehen aldiz hartu zuen parte meskalinarekin egindako esperimendu batean; peiote gisa ezaguna den kaktus mexikar batetik ateratako alkaloide mota bat da substantzia hori. Esperimentua egiteko, literatur mundutik gertu zeuden mediku eta zientzialarien laguntza izan zuen, Julian de Ajuriaguerra neurologo bilbotarrarena tartean. Substantzia psikoaktibo horrek nahiz beste batzuek — psilozibina eta LSD 25, adibidez— eragiten dituzten mutazio psikiko eta sensorialek txundituta, eta horien efektuak zehatz-mehatz aztertzeko asmo irmoarekin, Michauxk hainbat saio egin zituen 1960ko hamarkadaren hasiera arte; saio horien emaitzak bere literatur lanetan islatu zituen, hala nola, *Misérable Miracle* eta *L'Infini turbulent* liburuetan. Bien bitartean, marrazki zehatz ugari egin zituen, aurreko urteetan agertzen hasi zen matrize grafiko baten arabera: arrasto eta zuhaitz-formen eskema bat, sarritan goranzkoa, simetria eta mikrografiaz gainezka.

Obra grafiko horiek nahiz literatur lanek eraman zuten Michaux kultura psikodeliko hasiberriaren eta *underground* mistikaren eredu izatera, nahiz eta berak paradisu artifizialean batera interesik gabeko “ur-edale” neurritsu gisa definitu zuen bere burua beti. Esperimentazio kimikoa laga osteko urteetan, estilo “meskalinarra” garatzen jarraitu zuen artistak, beste sail eta obsesio artistiko handietan lan egin artean. Horietan guztietan topatu zuen imajinarioaren kartografiarako eremu emankorra.

Didaktika

BBK-k babestutako Didaktika proiektuaren parte gisa, espazio didaktikoak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak, erakusketa bakoitza osatu, eta erakutsitako lanen ulermena eta pertzepzioa errazteko erreminta eta baliabideak eskaintzeko.

Gorputza eta gogoia estimulatzen dituzten esperientziak. Autoezagutzaren bide luzea

Gazte-gaztetatik ezagutu nahi izan zuen Henri Michauxk bere izaera propioa eta inguruko munduarena; ondorioz, autoesplorazio-prozesu etengabe oinarritzen dira bai bere bizitza baita bere obra ere. Hori dela eta, autoezagutzarako bide horretan artista gidatu zuten estimuluetako batzuk erakusten dira espazio didaktiko honetan. Hizkuntzarekin eta hitzekin esperimendatzeko aukera izango du bisitariak, baita Michauxren bildumako musika-tresnekin inprobisatzeko aukera ere ere —tam-tamarekin edo kalinbarekin esaterako—, atzealdeko musika gisa Michauxk berak bidaietan ezagututako melodiak entzun bitartean.

Modu osagarrian, Michauxk meskalinarekin egindako ikerketak jasotzen dituen ikus-entzunezko bat izango da, eta irakurketara zuzendutako sail garrantzitsu bat ere bai. Bertan, Michauxren idazkien aukeraketa bat izango da kontsultarako —poesia, bidaia-koadernoak edo kontakizun laburrak—, eta baita bere obrari lotutako beste autore batzuen idazkiak ere, Jorge Luis Borges edo Octavio Paz-enak, esaterako.

Jarduerak

- Julián de Ajuriaguerra eta Henri Michaux-ri buruzko hitzaldia (otsailak 22)
Joseba Mikel Aguirre Oar, Julián de Ajuriaguerraren ikasle izandakoa, psikiatra bilbotarrak Henri Michauxrekin izandako harremanari buruz mintzatuko da. Ajuriaguerrak Michauxri laguntza eman zion bere esperientzia poetikoetarako meskalina modu kontrolatuan hartzen; *Misérable miracle* liburuan jasoko zituen, gerora, esperimendu horiek artistak.
- Henri Michauxren testuen errezitaldia (apirilak 26)
Michauxren lan idatziak garrantzi handia izan zuen haren ibilbide artistikoan. Gau-emanaldi literario bat *Poetalia* elkartearen rapsoden eskutik, zeintzuk Michauxren bidaia-koadernoen, poesien eta kontakizun laburren aukeraketa baten irakurketa oparituko diguten.
- Sormen-prozesua: Marie Chouinard eta dantza Henri Michauxren obran (maiatzak 4)
Marie Chouinard koreografo kanadar entzutetsuak Henri Michauxren *Mugimenduak* (1952) bilduma inspirazio iturritzat hartuta Montrealgo bere dantza-konpainiarentzat sortutako dantza garaikideko piezaren sekretuak partekatuko ditu.
- Partekatutako hausnarketak
Museoko profesionalen eskutik egindako bisitaldi paregabeak, erakusketak, muntaiaren zokoak eta bestelako bitxikeria batzuk hobeto ezagutzeko.
- Henri Michaux: arte arduradunaren ikuspegia (otsailak 14)
Manuel Cirauqui, erakusketaren komisarioa
- Henri Michaux: funtsezko kontzeptuak (otsailak 21)
Luz Maguregui, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza Koordinatzailea

*Babeslea: Vizcaína Aguirre Fundazioa

Katalogoa

Erakusketarekin batera, katalogo ilustratu bat argitaratuko da; bertan, erakusketaren komisarioak idatzitako testu batez gain, Henri Michaux beraren idazki esanguratsuen hautaketa bat ere topatuko du irakurleak, bai eta Julián de Ajuriaguerra neurologo entzutetsu bilbotarrak idatzitako saiakera bat ere; azken hori artistarekin elkarlanean jardun zen haren ibilbideko une garrantzitsuenetan. Balio historiko nabarmena dute artistaren eta neurologoaren testuek, eta ez dira euskaraz edo gaztelaniaz argitaratu orain arte.

Azaleko irudia:

Henri Michaux

Titulurik gabea, 1981

Akrilikoa, Txinako tinta eta arkatza paper gainean

500 x 650 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa

Argazkia: Erika Barahona Ede

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus
(prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Henri Michaux: beste aldea
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

1. Henri Michaux

Gaeko printzea (Le Prince de la nuit), 1937

Akuarela eta gouachea paper beltzaren gainean

323 x 245 mm

Musée National d'Art Moderne, Centre Georges Pompidou, Paris.

Honen dohaintza: Daniel Cordier jauna, 1976

© Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais / Philippe Migeat



2. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1938


Akuarela eta gouachea paper beltzaren gainean

230 x 305 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Jean-Louis Losi



3. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1938-39

Gouachea paper beltzaren gainean

100 x 130 mm

Bilduma pribatua, Paris

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Jean-Louis Losi



4. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1944

Txinako tinta paper gainean

240 x 320 mm



Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Jean-Louis Losi

5. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1950

Txinako tinta abaraska paper gainean

320 x 240 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa

Argazkia: Erika Barahona Ede



6. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1956

Txinako tinta eta arkatza paper gainean

240 x 162 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018



7. Henri Michaux

Pintura mescalínica (Peinture mescalinienne), 1956

Óleo y gouache sobre papel

420 x 270 mm

Musée National d'Art Moderne, Centre Georges Pompidou, París.

Donación Sr. Daniel Cordier, 1976

© Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais / Bertrand Prévost

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa

Argazkia: Erika Barahona Ede



8. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1970

Akuarela eta akrilikoa paper gainean

560 x 375 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa

Argazkia: Erika Barahona Ede



9. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1979

Txinako tinta paper gainean

640 x 905 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Jean-Louis Losi



10. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1980

Txinako tinta Japoniako paper gainean

207 x 702 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Jean-Louis Losi



11. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1981

Akriliko, Txinako tinta eta arkatza paper gainean

500 x 650 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018



12. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1981

Akuarela paper gainean

367 x 270 mm

Bilduma pribatua

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa

Argazkia: Erika Barahona Ede



13. Henri Michaux

Titulurik gabea, 1982

Tinta eta akuarela paper gainean

500 x 325 mm

Bilduma pribatua, Frantzia

© Archives Henri Michaux, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Suzanne Nagy

